



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, [REDACTED] JAUNAK BETI ONA KIROL ELKARTEAREN IZENEAN ETA HAREN ORDEZKARI GISA GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO LEHIA ETA KIROL DIZIPLINAKO BATZORDEAK 2017KO MAIATZAREN 23AN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA.

Espediente-zenbakia: 42/2017

AURREKARIAK

Lehena.- Joan den 2017ko maiatzaren 20an Touring KE eta Beti Ona KE taldeen artean jokatu zen haurren ohorezko mailako futbol-partidan, arbitroaren aktan jasota dagoenez, Beti Ona KEko entrenatzaile [REDACTED] jauna kanporatu egin zuten 62. minutuan, «*nire erabakietako baten aurka nabarmenkiro protestatzeagatik*».

Dagokion espedientea izapidetu ostean, Gipuzkoako Futbol Federazioko Lehia eta Kirol Diziplinako Batzordeak, 2017ko maiatzaren 23an, aipatutako entrenatzaileari bere jarduera 31 egunez eteteko zigorra ezartzea erabaki zuen.

Bigarrena.- Erabaki horren aurka, [REDACTED] jaunak, Beti Ona KEko presidentek, kirol-elkartearen izenean eta haren ordezkari gisa, errekurtsoa jarri zuen honako hau eskatzeko: «*Kontuan har dadila [REDACTED] jaunak entrenatzaile gisa kategoria ugaritan izan duen ibilbide luzean hezibide onez, zuzen eta diziplinaz jardun duela eta orain arte ez dutela inoiz zigortu edo kanporatu. Horrenbestez, zehapen hori berrikusteko eskatzen dugu*».



Hirugarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsio horren izapidetzea onartzea erabaki zuen, eta espedientea eskatu zion Gipuzkoako Futbol Federazioari. Horrekin batera, alegazioak egitea ahalbidetu, eta egokitzat jotzen zituen froga-eginbideak aurkezteko aukera eman zion. 2017ko ekainaren 16an, federazio horren espedientea helarazitzat jo zen, baita Lehia eta Kirol Diziplinako Batzordeko Idazkariak egindako txostena ere.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.a) artikuluari eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikuluari jarraituz.

Bigarrena.- Eztatidagaiak errekurtsioa jarri zuen klubari ezarritako zehapenaren jatorria, tipifikazioa eta proportzionaltasuna dira.

Kasu honetan, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretua aplikatu zuen zehapen-organo eskudunak, eta hori bat dator Gipuzkoako Futbol Federazioaren 9. zirkularrean xedatutakoarekin («...*Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen Errendimenduzko Ohorezko Infantil lehiaketa antolatzen du...*»), aipatutako dekretuaren 2.3 artikuluaen harira («*Dekretu honetan jasotzen den diziplina-araubidea aplikatuko da lurralde historikoetako foru-organoek onartutako eskola-kiroleko urteko programetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Jokoetan aurreikusitako kirol-txapelketetan...*»).

Zehazki, 391/2013 Dekretuko honako agindu hauek aplikatu ziren:



- «12. artikulua- Teknikarien eta zuzendarien arau-hauste larriak. Teknikariek eta zuzendariak egindako arau-hauste larritzat hartuko dira honako hauek:

(...)

- i) *Arau-hauste arinetan berrerortzea*».

- «17. artikulua. Zehapen arruntak.

(...)

2- *Arau-hauste larriak eginez gero, honako zehapen hauek aplika daitezke:*

- a) *Lizentzia baliogabetzea, hilabeterako gutxienez, eta urtebeterako gehienez*

(...)

Hirugarrena.- Alderdi errekurtsogilearen ustez, ezarritako zehapena ez da egokia, eta hura berrikusi egin behar da honako arrazoi hauek direla eta:

- «31 eguneko zehapena ezarri da, eta, gure ustez, gehiegizkoa da, partidaren gertatutakoa ikusita; zentzugabekeria iruditzen zaigu hala zigortzea».
- «Ez genuen lehen auzialdian errekurritu, arbitroarekin hitz egin ondoren onartu zuelako ez zuela kanporatu behar; aktan jasotakoa hori ez zela ikustean, harritu egin ginen. Horren ondoren, ez genuen ikusi erreakzionatzeko gaitasunik genuenik zehapena saihesteko, baina gehiegizkoa iruditzen zaigu eta, hori dela eta, oraingoan ezin dugu pasatzen utzi, nahiz eta arbitroarekiko elkarriketaren ondorengo emaitza bera lortu».



- Halaber, errekurtsuan [REDACTED] jauna «*heziera onekoa, zuzena eta diziplinatua*» dela nabarmendu, eta honakoa aipatzen da: «*Orain arte ez du zehapenik jaso eta ez dute inoiz kanporatu*».

Laugarrena.- Federazioko Lehia eta Diziplina Batzordeak, errekurtsogileak egindako oharren harira, adierazi zuen arbitroen aktak egiazkotzat jotzen direla (391/2013 Dekretuaren 30. artikulua), kanporatzea ez zela «*lehen auzialdian errekurritu*» eta [REDACTED] jaunak 2017ko martxoaren 14an «*bere jarduera 5 egunez eteteko zehapena*» jaso zuela; beraz, errekurtsogilearen azken alegazioa zalantzazkoa izango da, eta, aldiz, Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Erregelamenduko 16.2 artikuluan jasotzen den berrerortze-irizpidea aplikatu beharko litzateke («*berrerortzea gertatzen da hutsegitearen egileak denboraldi berean beste zehapen bat jaso badu, ebazpen irmoz, larritasun bereko edo handiagoko edozein arau-hausterengatik edota larritasun txikiagoko bi arau-hauste edo gehiagorengatik*»).

Bosgarrena.- Bada, errekurtsogilearen idazkian jasotako alegazioak eta federazioak bere txostenean adierazitako hausnarketak aztertu ostean, kasu honetan, errekurtsua ezetsi egin behar dela uste dugu, jarraian azalduko ditugun arrazoiak direla eta.

Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 50.2 artikuluan jasotzen den moduan, kirol-epaileek hartutako erabakiak «*zuzentzat joko dira, eta epaileen aktak lehiaketak behar bezala garatzeko beharrezko dokumentuak izango dira*».

Printzipioz, beste pertsona batzuen iritzia ezin du, besterik gabe, arbitroen balorazioa ordezkatu, nahiz eta arbitroen edo kirol-epaileen erabakien zuzentasun-presuntzioa edozein kasutan «*iuris tantum*» presuntzioa den, hau



da, aurkako froga onartzen du. Eta, froga horretatik arauak bete ez direla, akats bat gertatu dela edo ageriko arbitrariotasuna ondorioztatzen bada, zalantzarik gabe, kasu horretan, arbitroaren eginkizuna berrikusi ahal izango da. Arbitroen jarduketa egokia asaldatzen duen elementurik ez badago, epaimahaiaren erabakia nagusituko da lehiakideek edo horien ordezkariak izan dezaketen iritzia gainera, hura ez baita teknikoa eta inpartziala.

Errekurtsogileak puntu horretan esku hartu behar du, bere alegazioen eta aurkeztutako edo proposatutako frogen bitartez.

Dena den, guri dagokigun kasuan, Beti Ona KE klubaren ordezkariaren eginkizuna ezin da nahikotzat hartu, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen arabera, lehiaketako arbitroak hartutako erabakiaren ustezko egiazkotasun-presuntzioa indargabetzeko, eta, beraz, azken hori nagusituko da.

Errekurtsuan arrazoitzen zen hasieran ez zela erreklamaziorik jarri, «*arbitroarekin hitz egin ondoren, onartu zuelako ez zuela kanporatu behar*». Aipamen horretaz haratago, ez zen horren frogarik aurkeztu; beraz, arbitroaren akta eta espedientearen gainerako zatia baino ezin dugu oinarritzat hartu.

Seigarrena.- Arau-haustearen tipifikatzeari eta ezarritako zehapenaren helmenari dagokionez, erabat egokitzen hartzen ditugu.

Batetik, errekurtsogileak egindako alegazioari dagokionez ([REDACTED] jauna «*orain arte ez dute inoiz zigortu edo kanporatu*»), espedientearen jasota dago entrenatzaile hori denboraldi honetan bertan beste behin kanporatu dutela; zehazki, 2017ko martxoaren 14an, Beti Ona KE eta Zarautz KE taldeek



jokatutako partidari «*arbitroari edo marrazainei behin eta berriro protesta egiteagatik*» (zehapena: 5 egun).

Ondorioz, arau-hauste arinen berrerortze-kasu bat dugu esku artean, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Erregelamenduaren 16.2 artikuluan adierazten den moduan («*berrerortzea gertatzen da hutsegitearen egileak denboraldi berean beste zehapen bat jaso badu, ebazpen irmoz, larritasun bereko edo handiagoko edozein arau-hausterengatik edota larritasun txikiagoko bi arau-hauste edo gehiagorengatik*»).

Arau-hauste arinetan berrerortzea arau-hauste larritzat jo behar da, aipatutako 391/2013 Dekretuko 12. artikuluan xedatutakoarekin bat: «*Teknikariek eta zuzendariak egindako arau-hauste larritzat hartuko dira honako hauek: (...) II) Arau-hauste arinetan berrerortzea*».

Arau-hauste larrietarako zehapen posible ugari daude (391/2013 Dekretuaren 17. artikulua). Horietatik guztietatik, [REDACTED] jaunari lizentzia eteteko zehapena jarri zaio gradu minimoan («*Arau-hauste larriak eginez gero, honako zigor hauek aplikatu daitezke: a) Lizentzia baliogabetzea, hilabeterako gutxienez, eta urtebeterako gehienez*»). Hortaz, ezin da esan zehapena gehiegizkoa denik.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

EBAZTEN DU

Beti Ona KE klubeko Presidente Francisco [REDACTED] jaunak klub horren izenean eta haren ordezkari gisa Gipuzkoako Futbol Federakundearen Lehia



eta Kirol Diziplinako Batzordearen 2017ko maiatzaren 23ko Erabakiaren aurka jarri zuen errekurtsua **ezestea**.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsua aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 14a

JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea